

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2022 000001614

OSOKO BILKURA DEIALDIA**Xedea****2022-05-27(e)ko OSOKO BILKURA** deialdia.**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2022ko maiatzaren 17an, 2022ko maiatzaren 18an eta 2022ko maiatzaren 19an Lurralde Informazio Batzordea, Herritarrak Informazio Batzordea eta Erakunde eta Kontu Batzorde Berezia egin ziren, hurrenez hurren.

Bigarrena: 2022ko maiatzaren 24an Bozera maileen Batzarra egin da.

Hirugarrena: Lehendakariak otsailaren 11n 5/2022 Dekretua onartu zuen, zeinaren bidez deklaritzen den EAEn amaitu dela COVID-19aren pandemiaren ondoriozko osasun larrialdiko egoera, abenduaren 2ko 44/2021 Dekretuaren bidez deklaratu zena.

Lauugarrena: Egun berean, 2022ko otsailaren 11n, Osasuneko sailburuak Agindua onartu zuen, lehendakariak osasun-larrialdiaren egoera amaitu dela deklaratu ondoren, COVID 19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriei buruzkoa.

Argudioak

Lehenengoa: Alkatetzak OSOKO BILKURAKo deialdia egiteko eskumena dauka legeria hauen arabera:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak, 21.1.c) artikulua



- Azaroaren 28an 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiak (AFA) 41.4 artikuluetan xedatutakoa.

Bigarrena: 2022ko otsailaren 11n Osasuneko sailburuaren Agindua, Bermeoko Osoko Bilkurak 2021eko maiatzaren 28an saio mistoei buruz hartutako erabakia eta Bermeoko Udalean onartuta dagoen 2021eko maiatzaren 11ko 1443/2021 Alkatetza Dekretuaren udal jardueren inguruko protokoloa kontuan izan dira deialdia egiterakoan.

Ebazpena

Goian aitaturakoa kontuan hartuta, honako hau ebatzi dut:

LEHENENGOA: OSOKO BILKURA osatzen duten zinegotziak deitzea ohiko batzarrera.

BIGARRENA: Deialdia Alkatetza Dekretu honen eranskinean agertzen diren zehaztasunen arabera egin eta bertan agertzen den gai zerrenda onartzea. Ikusi 1. eranskina.

HIRUGARRENA: 1. deialdian quoruma izateko zinegotzi nahikorik egon ezean, batzarra automatikoki egun bi lanegun geroago eta ordu berean deitzea 2. deialdian.

LAUGARRENA: Jakinaraztea zinegotziei asistentzia nahitaezkoa dela, bertaratzea galarazten duen arrazoi justifikaturik egon ezean.

BOSGARRENA: Jakinaraztea gaurtik aurrera, udal honetako Egoitza Elektronikoa edo Idazkaritzan eskura daudela gai zerrendako gaiekin zerikusia daukaten espedienteak.

SEIGARRENA: COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren prebentzio-neurriak onartzea 2. Eranskinean jasotako eran.





BATZAR DEIA

Deitutako organoa:	OSOKO BILKURA
Batzarra:	Ohikoa
Deialdia:	1. deialdia
Eguna:	2022-05-27 (Ostirala)
Ordua:	08:30
Lekua:	Gizarte eta Kultura Etxeko Gaztelekuko lokala
2. deialdia:	2022/05/31 (Ostirala) 08:30

GAI ZERRENDEA

1. - Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2022-03-25 OB (02)
2. - Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
3. - Bermeoko Udalaren 2022ko Araudi Plana aldatzea onartzea.
- 4.- Autokarabanentzako zerbitzugunea arautzeko ordenantza hasikeraz onartzea.
- 5.- Kalez kaleko salmenta arautzen duen ordenantzaren aldatzearen hasierako onarpenari egindako alegazioa ebatzea eta ordenantza behin betiko onartzea.
6. - Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldatzea hasikeraz onartzea.
7. - Udalsarea 2030, Udalerrri Jasangarrien Euskal Sarearekin akordio berrira atxikitzeko erabakia hartzea.
- 8.- Prantzisko Deuna Atea 3 zenbakiko jabe alkatetari lur hargunearen instalazioa

3



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E60009C0D600N1R4C9H9U1B5

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 24/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/05/2022
10:15:57

: 202200001614

Data: 24/05/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E60009C0D600N1R4C9H9U1B5



egiteko emondako lizentzia deuseztatzeko eskaria ez onartzea.

9. - Bermeoko auzoetako etxebizitzaren zenbaki eguneraketa onartzea.

10. - Iruzur planaren gaineko adierazpen instituzionala onartzea.

11. - 2021eko Aurrekontuen Kitapenen berri ematea.

12. - 2022ko 1go hiruhileko hornitzaileei ordainketen inguruko txostenaren berri ematea.

13. - 2022ko 1go hiruhileko morositate datuen berri ematea.

14. - 2022ko 1go hiruhileko fakturei buruzko txostenaren berri ematea.

15. - 2022ko 739-1495 zenbakidun alkatetza dekretuen berri ematea.

16.- Tokiko Gobernu Batzarreko erabakien barri ematea: 2022ko martxoak 22 eta 29,
apirilak 5 eta 26 eta maiatzak 3, 10 eta 17

17. - Ganerako organoen kontrola.

18. - Eskari eta itaunak.



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.

Kodea:
07E60009C0D600N1R4C9H9U1B5

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 24/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/05/2022
10:15:57

: 2022000001614

Fecha: 24/05/2022

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



2. Eranskina**COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren
prebentzio neurriak hurrengoak dira:**

1. Covid-19aren ondorioz infektatuta egonez gero edo sintomak izanez gero (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna, eztarriko mina, hotzikara, usaimen eta dastamen eza, gorakoa, beherakoa eta bestelako arnas sintomak), ezin izango da batzarrean modu presentzian parte hartu.
2. Nahitaezkoa izango da arnas bideak babesteko ekipoak erabiltzea uneoro.
3. Kultur etxera sartzekoan alfonbra desinfektatzaileak erabiliko dira
4. Aforoak errespetatu behar dira (Gaztelekuan 24 pertsona)
5. Arreta bereziz pertsonen artean 1,5 metroko distantzia mantentzen saiatu beharko da. Distantzia hori mantentzerik ez dagoenean, higiene-neurri egokiak hartuko dira kutsadura-arriskua prebenitzeko, eta, nolana ere, ahalik eta distantziarik handiena mantenduko da pertsonen artean.
6. Eskuak gehiagotan garbitu beharko dira, eta, horretarako, soluzio hidroalkoholikoa edo ura eta xaboa erabiliko dira.
7. Etengabeko aireztapena bermatu beharko da egunean zehar, bai eta lokalak irekitzean eta ixtean ere.
8. CO2 neurgailuak erabiltzea gomendatzen da, barruko espazioaren aireztapen-maila egokiak mantentzen lagundu dezaketelako.
9. Oro har, errespetatu egin beharko dira osasun-agintariek COVID-19a prebenitzeko ezartzen dituzten bestelako segurtasun- eta higiene-neurriak.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .

**Sinadurea eta data**